

aditzea badut

AIPAGARRI

Xabier Lasa

Denak dira Isidro

Aitortzen du bekatari honek: oraindik morboa bilatzen die Javier Madrazok esan berri duen eran, eskandalu publiko eta zabor informatiboa diren RNeko tertuliak (M.A. Ricorekin oheratzen da gauero). Harribitxi antologikoak eskaintzen jarraitzen dutelako. Hara herenegungoa: Isidro izan zuten deitzaile izartsua, Bilbotik. Isidro, ogibidez Espainiako polizia, solaskideen alter ego gisa errebelatu zitzaigun. *Apareju* honek abertzaleen aurkako matxinada aldarrikatzen zuen. Demokrata gisa sufritzea egokitu zitzaion azken

Xabier Lete

Hagitx aholkugarria, gaur, 15,00etan EIn adituko den elkarrizketa, Leteri eginikoa. Euskal kulturgile ezagunen artean, inork ez bezain zoragarri daki uztartzen zer esana eta nola esana.

Euskal Selektzioa

Kostatzen zait asmatzea, ustez abertzale eta euskaldunena den Gipuzkoako uhinetan emititzen duten hiru kirol erredakzioek zergatik gutxiesten duten euskal selektzioa. Ez da izan Realaren hondamenagatik futbolaz nazkatuta daudelako?


ekintza, haxe: La2en, Hegoafrikako komisarietako tortura gai zuen filma ikusten ari zela —film didaktikoa, agi denez—, iragarkien tartean, 20 segundoko euskarazko iragarki bat sartu omen zioten. Gertaera hau aparatutik lehergailua jaurti izan baliote bezala azaltzen zuen bitartean, solaskideek miresmenez entzun zioten, eta aho batez baietsi zioten. Zer gutxiago entzule heroiko honi. Azken batean, Jauregui, Alonso de los Rios, Davila eta enparauak polizia frustratuak ditugu. Jada ez ditu asetzen gerripekotik gorantz datorrien edozer astakeria antean adierazteak. Horiek errege magoei Super Garzonen irudimen konfabulaztaila eta Isidoren espainiar furia eskatzen diete.

GABON EGUNA. Urteroko moduan telebista eta irrati kateetan gabon kantak izango dira protagonista nagusiak



A. BOFILL

AINHOA ARTETA TVE1-N. Raphael kantariarekin batera hainbat abeslari ezagunek hartuko dute parte saio berezi batean. Horien artean Ainhoa Arteta izango da.



GARI GARAIALDE

XABIER LETE EUSKADI IRRATIAN. Gabon kantak entzungo dira egunean zehar Euskadi Irratian. Baina saio garrantzitsuenak Xabier Leteri eginiko elkarrizketa izango da (15:00etan).



JACQUES DEMARTHON


NATHALIE TAUZIAT ETB-N. 'Hator kantari hator' saioan hainbat euskal pertsonaiek kantatuko dute. Horien artean izango da Nathalie Tauziat.

Gabon gauean denak kantuan

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

Gabon kantak abesten pasako dugu askok gaur eguna eta gaua. Eta telebista eta irrati kateetan beste hainbeste egingo dute. Urteroko ohiturari jarraituz, zenbait kate saio bereziak emitituko dituzte Gabon kantein.

Euskal Telebistako lehenengo katean, adibidez, *Hator kantari hator* saioa eskainiko dute azkeneko urteetan bezala (23:30ean). Eguberri kantak abestuko dituztenak oso ezagunak izango dira, Oskorri musika taldekoen laguntzarekin: Juan Maria Uriarte Donostiako goitzaina, Raul abeslari gasteiztarra, Karlos Arguiñano sukaldaria, Nathalie Tauziat tenislari lapurtarra, Amaya Uranga, Aurora Beltran, Serafin Zubiri, euskal paralinpiarrok, Orioko arraunlariak, Osasunako jokalariek eta abar. EITBko teletestuan eta web orrialdean kantuen zerrenda eta letrak aurki daitezke. ETB1 katean, dena dela, lehenagotik ere izango dira gabon kantak entzungai; 20:55ean Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, eta Easo eta Andra



JACQUES BRINON

ZIDANE BIHAR F2-N. Zinedine Zidane, Sylvie Vartan, Nana Mouskouri... izango dira kantuan.

Mari abesbatzen eskutik entzun ahal izango dira eguberrietako abestiak. Eta goizaldean (01:25etik aurrera) Gabonetako beste bi kontzertu emitituko di-



ETB

GABON KANTEN EMANALDIA ETB-N. Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin batera, Easo eta Andra Mari abesbatzek gabon kantak abestuko dituzte ETB1 katean (20:55).

tuzte: *Gabonetako aintza* eta *Charlotte Church*, *Aingeru ahotsa* izenburuekin.

Euskadi Irratian, bestalde, gabon kantak eskaintzeaz gain

15:00etan saio berezi bat egingo dute Xabier Leterekin. Arantxa Arzak elkarrizketa luze bat egingo dio Leteri. Gainontzeko euskal irratiaren ere gabon kan-

tak entzuteko parada izango da egunean zehar.

Hiru tenoreak eta beste hainbat

Espainiako eta Frantziako telebistetan ere gabon kantei bete-ko dituzte programazioko ordu ugari, zinemarekin batera.

La2 katean, adibidez, Eguberrietako abestiek hasi baino lehen Los Panchos taldearen saio berezi bat emango dute, 18:00etan. TVE1ean, ohizko *Telepasión* saioa emango dute Carlos Lozanok eta Paloma Lagok aurkeztua (21:15ean). Saioa bihar errepikatuko dute, 12:00etan. T5 katean Emilio Aragonek eta Belen Ruedak aurkeztuko dute gabon kanten saioa, 21:15ean. TVE1 katean beste bi saio izango dira 23:45etik aurrera: *La Gran Nochebuena de Raphael* (bertan Ainhoa Arteta tolosarrak hartuko dute parte) eta ondoren *La Navidad de los tres tenores*. Bihar, F2 katean *Petits anges d'un soir* saioa izango da hainbat famaturrekin (23:05ean).